

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a / 600. zenbakia



GANADU FERIA

Martitzenean Elosura joateko aitzakia

IBARGARAI: AUTOBUS GELTOKI PAREKO ORUBEA, SUKIARENTZAT /4 • ELKARRIZKETA: MAYRA JIMENEZ/12

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: XABIER AZKOITIA

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 8
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

ZAPATUA, 9
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

DOMEKA, 10
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

ASTELEHENA, 11
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05

MARTITZENA, 12
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63

EGUAZTENA, 13
MOZOS, Iparragirre 2 943 76 12 15

EGUENA, 14
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegaraieta Domekak: 11:00. San Lorentzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:00.
Santa Marina Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	Moja Zaharrak Lanegunak: 08:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Sierbak Lanegunak: 19:30	Antzuola Domekak: 10:00, 11:30.
Osintxu Domekak: 12:00.	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Elosu Domekak: 11:00.	Uzarraga Domekak: 10:00.
Ubera Domekak: 10:30.	Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30.
San Juan Domekak: 11:00.	Domekak: 12:00.
Elorregi Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1962AN JAIOTAKOEN AFARIA
1962an jaiotako enafaria urriaren 30ean, Erreki jatetxean. Izenematea (10 euro aurrez) bertan.

1933AN JAIOTAKOEN AFARIA
1933an jaiotako enafaria azaroaren 14an, Zumelaga jatetxean. Aurretik hildako enafaren aldeko meza izango da Santa Marinan, 13:00etan. Izenematea (6 euro aurrez) Intxorta tabernan.

1947AN JAIOTAKOEN AFARIA
1947an jaiotako enafaria azaroaren 20an, Tartufo jatetxean, 21:00etan. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Izenematea Euskadiko Kutxan, azaroaren 13ra arte.

SAN MARTIN ESKOLAKO ZOZKETA
San Martin eskolak egindako zozketan 498 izan da saritutako zenbakia. Araceli Azurmendi izan da irabazlea.

XIPIZARO LUDOTEKA
Xipizaro ludotekak hasi du ikasturte berria. Argibideak 943 76 23 76 telefono zenbakian.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEA
Txapligu taldeak (8-11 urte) ikasturtea hasiko du zapatuan, urriaren 9an. Zapatutik martitzenera arratsaldero jarduerak izango dira Arrizuriagan, 16:00etatik aurrera.

TXISKRILABI TALDEA
Txiskrilabikoek zapatuan hasiko dute ikasturte berria, 16:00etan Zabalotegin. Argibideak: 943 76 08 19.

JOLASLEKU IBILTARIA
Hurrengo egubakoitzean, urriaren 15ean, Espoioian izango da Jolasleku Ibiltaria, 17:00etatik 19:00etara.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTEBERGARAN


Bergarako errugbilariak, Arrasateko taldean

Arrasate Errugbi Taldean ziharduten Inigo Antsuategi, Izaro Ape-ribai eta Asier Etxanizek orain dela 10 urte. Inigo Olasolo, berriz, Donostiako UPV-EHU taldean ari zen. Lauren artean Olasolo zen beterranoena, zazpi urte baitzeramatzan errugbian jokatzeko. Bergaran talderik ez zegoenez, kanpoan jokatzeko zuten laurak.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gibelaundi"



Gibelaundixa
— Gibelaundi samarra ezpaltz ardurak ittoko leukie.

JON IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

'EL BOSQUE'

ZUZENDARIA: M. NIGHT SHYAMALAN. **AKTO-REAK:** JOAQUIN PHOENIX, BRYCE DALLAS HOWARD.

HARIA. 1897. urtea. Pennsylvania-ko herri baten inguruko basoetan izaki gaizto batzuk bizi dira. Basoaren mugetatik harago zer dagoen jakiteko irrikan dago *Lucius*...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 22:30ean eta martitzenean, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTAZIOA: ● ● ● ● ●

'SHREK 2'

ZUZENDARIAK: ANDREW ADAMSON, KELLY ASBURY, CONRAD VERNON.

HARIA. Fiona printzesaren gurasoek, errege-erreginek, Fiona bera eta Shrek gonbidatuko dituzte euren gaztelura, ezkon berrien ezkontza ospatzera. Shrek bere kontrako konplotari aurre egin beharko dio...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan eta martitzenean, 17:00etan.

PUNTAZIOA: ● ● ● ● ●

'LA MEMORIA DE LOS PECES'

ZUZENDARIA: LIZ GILL. **AKTOREAK:** SEAN CAMPION, FLORA MONTGOMERY.

HARIA. Dublinen girotutako komedia erromantikoa egin du Liz Gillek. *Tom* mutil-laguna beste neska bati musu ematen ikusiko du *Clara*-k. Handik aurrera hainbat egoera tartekatuko dira; guztiak harreman perfektuaren bila ibiliko dira.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, hilaren 14an, 20:00etan. Zinekluba.


PUNTAZIOA: ● ● ● ● ●

BERGARA Margoak

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ATREBENTZIAEZPADA/ Eskola orduetatik kanpo ekintzaren batean eman duzu izena?



ELENA EGINO
12 urte

Bai, saskibaloian eta dantzaz nabil eta musika eskolan koralean eta akordeoian. Gogoia neukalako eman nuen izena; gainera, lagunak ere kiroletan eta musikan batera gabiltza.



JON MOÑUX
12 urte

Saskibaloiko taldera, musikara, saxofoiko eskoletara eta bandara joaten naiz, baita frantsesa ikastera ere. Hala ere, ostiralak libre ditut. Denetan gusturen saskibaloira joaten naiz.




ANDER BARRUSO
12 urte

Bai, ingeleseko eskoletan eta saskibaloiko taldean eman dut izena. Baina nahiko denbora geratzen zait jolasteko. Saskibaloia nahiago dut, baina ingelese ere gustura joaten naiz.



MIREN ORMAZABAL
13 urte

Ingelesa ikastera, biolontxeloko eskoletara eta orkestrara joaten naiz, azken hau gustatzen zait gehien. Gustuko dudalako eman dut izena, eta gainera, jolaserako denbora ere izaten dut.



DANEL SANTAMARIA
7 urte


Pinturan eta musikan eman dut izena, baina musika gustatzen zait gehien. Nik nahi dudalako joaten naiz eskoletara, eta gero lagunekin ibiltzeko denbora gelditzen zait, gainera.



AINHOA AMESTI
11 URTE

Iaz bezala aurten ere musikako eskoletan jarraitzen dut eta aurten katekesira ere joaten naiz. Gero ikasi ere egin behar dut, eta apenas geratzen zait denborarik jolaserako.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOA TRABAN UZTEN DUTEN GIDARIEI Hainbat gaztetxo haserre dira Seminarioan aparkatzen duten gidariekin. Autoa traban uzten dutela diote, eta horren ondorioz ezin izaten dutela lagunartean futboleko edo saskibaloiko jokatu. Gidariekin Seminarioko sarrean dagoen kartela irakurri beharko luketela diote: zama lanetarako izan ezik han ezin dela autorik aparkatu dio kartelak. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

KIROLA /8

KULTURA /12

Erretiratuak, protagonista

Erretiratuen kultur hamabostaldia ospatuko da urriaren 18tik 30era bitartean.

Beti-Bustiko piraguitak

Beti-Busti taldeko Leire Fernandez eta Markel Cestafe, Euskadiko kadete mailako selekzioarekin.

Marrazketa erakusten

Beart elkarteko Mayra Jimenez eta Oihana Garitano, gaztetxoei marrazketa erakusten.

ASTEKODATUA

96

ETXEBIZITZA EGINO DITUZTE IBARGARAIN

Ibargarain hutsik dauden bi orubeetan 96 etxebizitza egingo dituzte. Asteleheneko Udaltzatzen, Sukia enpresari autobus geltoki pareko orubea Sukia enpresari saltzea erabaki zuten.

BESTEKEESANA

“Ehungintza Bergarako industriarik ezaguna da. Hala ere, Aro Modernoaren hasieran, altzairuaren eta burdinaren industriak labanagintza eta guraizegintzari lotuta, oso industria garrantzitsua izan zen”
JOSE ANTONIO AZPIAZU / Filosofian lizentziatua eta historian aditua 'El Diario Vasco'/04-10-05

“Kulturaren Euskal Planak espero dut gauza onak ekartzea. Ez da gutxi kulturaren txanda iritsi izana. Dena den, lehen urratsak dira eta ikusteko dago oraindik nola gauzatuko den. Gauza asko dago hobetzeko, eta kultura oso gauza garrantzitsua da. Gure esparruan esaterako, eskola baten beharra somatzen dugu”
MIREIA GABILONDO / Aktorea 'Asteleheneko Goienkaria'/04-10-04

BERAIEKDIÑO/ Jose Angel Mikeo



Gizatasuna

Bizitza, askorentzat haurtzaroan ikasitako arekin moldatzen da, garai horretan barneratutakoa nahikoa dute izaera osoa bere horretan geldi dadin. Ez dago garapenerako grinarik, zerbait gehiago eta hobea izateko gogorik.

Baina tarteka, gure aurrean, gizon-emakume eredugarriak ere azaltzen zaizkigu, bizitzako atsekabe bakoitzetik indarberriak azaltzen direnak, etorkizuna orainean eraikitzeko gai diren pertsonak. Adin, izaera, kolore eta abarretan amildu barik edonorekin lankidetzaz uztartzen dakiten lagunak.

Aste honetan Martin Ugalde hil da. Euskaraz, gizona hitzak izan dezaken esanahi osoa beregan zuena. Herriarekin eta euskararekin konpromisoa bizitzako ardatz bihurturik, beti aurrera begiratu, une bakoitzean zer egin behar duen jakin duen horretarikoa.

Ez da erraza pertsona batengan Euskal Herriak bizi

izan zuen pasa den mendeko gora-behera guztiak aurkitzea: gerra, erbestealdia, ihes egin beharra, kulturarekin konpromisoa (Venezuelan hangoarekin, hemen hemengoarekin), gobernuko ardura eta, azkenik *Euskaldunon Egunkaria* proiektua gauzatzea, bizitzako azken

froga berau, etsaieren aurrean hil arte defenditu duena.

Laurogei urte izanik berrogei eta hamar urte gutxiago duenarekin elkarlanean jarduteko gai denak asko adierazten du bere gaztetasuna eta bizitzan duen

itxaropena zenbaterainokoa den. Eredugarriak dira benetan halako pertsonak, herrigintza nola egiten den azaltzen baitute. Martin Ugalde hiltzeak Antonio Urzelai ekarri dit burura. Hurbilean ere izan ditugu gizatasunez betetako gizonak. Suertea izan genuen ezagutzeaz eta elkarrekin gauzak egiteko aukera izateaz, konturatu baikinen nolakoak ziren. Ea ereduak jarraipenik duen!

“Aste honetan Martin Ugalde hil da. Euskaraz, gizona hitzak izan dezaken esanahi osoa beregan zuena”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



HIRIGINTZA/ Aipatutako orubean Sukia enpresak 48 etxebizitza egitea aurreikusten da

Sukiari saldu dio Udalak autobus geltokiaren pareko orubea, 5,3 milioi euroren truke

EDU MENDIBIL

Asteleheneko udalbatzarrean erabakitakoaren arabera, Sukia enpresak egingo ditu Area 20-ko F orubeko etxebizitzak. Gaur egun autobus geltokiaren pareko aparkalekua dagoen tokian 48 etxebizitza eraikiko ditu Sukiak.

Ibargarain gaur egun hutsik dauden bi orubeetan (azken urteotan, Pazkoetan zezen-plaza jarri izan den bi tokietan) bi etxebizitza bloke egitea zehazten da. Aipatutako bloke bakoitzak bost solairu eta 48 etxebizitza izango ditu eta bi blokeen erdian plaza bat izango da. Arregi, Toki Eder eta Ortuibar enpresak dira gaur egun hutsik dagoen B orubearen jabeak.

LEHIAKETA PUBLIKOA

Udalak lehiaketa publikora aterra zuen F orubearen salmenta (autobus geltokiaren pareko aparkalekukoa) eta Hirigintza batzordearen txostenen arabera, Sukiaren eskaintza izan da jasotako onena. Udalean lau eskaintza izan dituzte aztergai. Asteleheneko udalbatzak, aho batez, orubea Sukiari saltzea berretsi zuen. Orubeak 1.745 m² ditu. Sukiak 5.328.463 euro ordainduko dizkio Udalari. 328.433 euro Udalak lehen Ibargarai kalean egindako urbanizazio lanei dagozkie. Arrizuri



Ibargarain hutsik dauden bi orubeetan 96 etxebizitza eraikiko dituzte.

riaga parkearen urbanizazioaren kargu ere egingo da Sukia, 300.500 euroko aurrekontuarekin.

Hirigintza batzordeko iturrien arabera, Sukiak dirutan

egindako eskaintza besteena baino dezente handiagoa zen. Bigarren eskaintza onena 734.000 euro gutxiagokoa zen. Sukiak eraikiko dituen etxebizitzetan garaje-

ak bi solairutan izango dira. Hitzartutakoaren arabera, Udalak aukera izango du lehen sotoan 66 garaje edo bigarren sotoan 68 garaje eskuratzeko. Garaje

bakoitzeko 12.000 euro aurreikusi ditu Udalak.

DIRUA KIROLGUNERA BIDERATU

Udaleko iturriek adierazitakoaren arabera, orubearen salmentarekin jasotako diru kopururik handiena Agorrosingo kirolgune berrira bideratuko dute. Bestalde, B zein F orubetan egingo diren etxebizitzetako arkitektoa pertsona bera izango da ziurrenik. Oraindik ez da zehaztu aipatutako etxebizitzak egiteko lanak noiz hasiko dituzten.

AUTOBUS GELTOKIA

Area-20 urbanizazioari dagokionez, autobus geltokia non kokatu erabakitzeko dago. Hasi batean, egingo diren etxe berriei bi blokeen tartean jartzea zehazten zen. Hala ere, gaur egun geltokiaren gainean bizi diren Ibargarai bizilagunen kezak izan dira, eta bestalde tranbiaren proiektuaren zain dago udala geltokia non kokatu erabakitzeko.

Bestalde, Ibargarai eta Espoioia lotzeko bidea egingo dute, palmondoa dagoen biribilunetik Espoioiaren hasieraraino (Mariaren Lagundiko sarreraren parearaino), hain zuzen. Lucio Arregi zenaren etxea bota egingo dute eta inguruko lur zatia Arrizuriaga parkean integratuko dute. Etxebizitza berrien ondoko plazatik Arrizuriagarako sarrera-irteera egongo dela aurreikusten da proiektuan.

Euskal hizkuntza komunitatea aztertzen duen liburua kalean

E.M.

Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar linguistikoa: Andoaingo, Arrasateko, Bergarako, Hernaniko eta Lasarte-Oriako udalerriak izenburuko liburua aurkeztuko dute datorren egunean, hilaren 14an, UNEDeko aretoan, 19:00etan. Soziolinguistika Klusterrak argitaratu du liburua, izenburuan azaltzen diren udalen laguntzaz.

EUSKARAREN ERABILERA

Iñaki Martínez de Luna eta Ibon Usarralde soziologoak dira liburua erabileraren egileak. Euren esanetan, erabilera da euskararen normalizazioaren adierazle adierazgarriena eta erabileraren zeresana duten faktoreak identifikatu, bakoitzaren garrantzia zehaztu eta neurtzen saiatu dira, eskuratzeko ekimen eraginkorrak bideratzeko asmoz: "Bizindar etnolin-



Aztertutako herrietatik, Bergaran erabiltzen da gehien euskara.

gustikoaren eta euskararen erabileraren arteko erlazioan sakontzen saiatu eta erlazio horren intentsitatea zehazteko den azaldu nahi izan dugu", diote.

Liburuan 2002an egindako ikerkuntzaren emaitza jaso dute. Euskararen ahozko erabilera dagokionez, erabilera handiena Bergarak dauka: %35,31.

LABUR

Paulo Elkoro preso bergararra epaituko dute datorren astean, Entzutegi Nazionalean

Paulo Elkoro epaituko dute datorren astean, Madrilgo Entzutegi Nazionalean. Epaiketa urriaren 13an, 14an eta 15ean izango da eta Madrilera joateko autobusak antolatu dituzte. Ohiko tokietan eman daiteke izena, urriaren 11ra arte.

Epaiaketa irauten duen bitartean, elkarretaratzek deitu dituzte Bergarako San Martin plazan, egunero 19:30ean.

'Aupa Etxebeste!' filmean parte hartu zuten egunean ordainduko zaie egindako lana

Aupa Etxebeste! filmaketa parte hartu zuten bergararrei egindako lana ordainduko zaie egunean, hilaren 14an. Beraz, interesatuek, kultura etxea jo beharko dute egun horretan, 16:00etatik 20:00etara. Beharrezkoa da nortasun agiria aurkeztea. Egun horretan joaterik ezin izanez gero, lagun bati nortasun agiria uztea nahikoa da dirua kobratu ahal izateko.

Urriaren 17an Donostian ospatuko den odol emileen jaira joateko autobusa izango da

Gipuzkoako Odol Emileen Elkartearen 40. urteurrena ospatuko da urriaren 17an Donostian. Herriko 26 odol emale omenduko dituzte. Donostiara joateko autobusa aterako da Bergaratik. Beraz, Anoetan izango den jaira joan nahi dutenek 943 76 16 24 telefonoz eman dezakete izena.

JAIK/ Antolatzaileek 8.000 lagun inguru biltzea espero dute; 120 ganadu buru inguru izango dira ferian ikusgai

Elosuko Mendiko Ganaduko Feriaren 26. ekitaldia ospatuko da martitzenean

EDU MENDIBIL

Ohikoa denez, martitzenean, Pilarika egunean, Elosuko Mendiko Ganadu Feria ospatuko da. Aurtengoa 26. ekitaldia izango da. Feria antolatzen duen Elurtxiki elkarteak kideen arabera, 120 bat ganadu buru izango dira ikusgai Elosun.

Hainbat arrazatako behiez gain, ardiak, zaldiak, behorak, astoak edota idiak egongo dira ikusgai goizetik Elosun. Feria 09:00etan hasiko da eta sari banaketa, berriz, 13:00etan egingo dute, pilotalekuan. Tarte horretan izango da zer ikusi eta zer dastatu Elosun.

Euskal Herriko feriarik arrakastatsuenetakoa bilakatu da Elosukoa eta martitzenean ere mila-laka lagun biltzea espero dute antolatzaileek. Igor Oruesagasti Elosuko auzo alkatearen arabera, 8.000 lagun inguru etortzen dira feria egunean Elosura: "Horrelako auzo txiki baten base-rik giro bikaina sortu izan da beti. Egun pasa datorren kaleko


jende asko ere etortzen da, eta oso pozik gaude guztien partetik jasotako erantzunagatik. Ea eguraldiak laguntzen duen eta aurrekoetan bezala giro ederrean ospatzen dugun feria..." azaldu digu Oruesagastik. Elurtxiki elkarteak kideak orain dela pare bat hilabete hasi ziren feria antolatzeko lanetan. Bergara eta Azkoitiko udalen laguntza jaso dute oraingoan ere.

HERRI KIROLAK ARRATSALDEAN

Jai egitarauarekin jarraituz, arratsaldean herri kirolen jaialdia izango da, 17:00etan hasita. Goenatxo II.a eta Elosukorta herri jasotzaileak eta Flores eta Asurmendi aizkolariek jardungo dute lehian, nor baino nor. Era berean, Lutxurdio eta Aitziber trikitilariak giroa alaitzen arituko dira egun osoz.

BERGARATIK AUTOBUSAK

Iaz bezala, aurrean ere Bergaratik Elosura joateko autobusak izango dira feria egunean. 09:00etatik 14:30ak bitartean San Martin plazatik autobusak irtengo dira, 45 minutu inguruko tartearekin.



Feria 09:00etan zabalduko dute martitzenean eta goizean zehar izango da zer ikusi eta zer dastatu Elosun.

XABIER AZKOITIA

Jaiak suspertzeko bilera izango da datorren egunean, kultura etxean

E.M.

Herriko gazte talde batek deituta, Pazkoak suspertzeko asmoarekin bilera izango da datorren egunean, hilaren 14an, kultura etxean, 19:30ean. Herria-lanean izenarekin biltzen den gazteen kolektibo honek dei egiten die gaiarekin interesatutako guztiei bileran parte hartzeko.

HERRI GIROA ALAITU

Deialdia egin duten gazteak kezkatuta daude herriko jaietan giroak behera egin duelako azkenaldian: "Azken Pazkoetan, lehendik ere buruan genbiltzan beldur eta kezka gorpuztu egin ziren. Parte hartze herritarraren tamainak eta bazkari herrikoien inguruko gogoeta ilunak lanerako planteamendu berri bati hasiera

eman zion. Herri giroa alaitu, kale bizitza suspertu eta ondorioz jaiak bizitzeko asmo eta gogo berriz lan egiteko asmoa dauka. Kalea gure hartu emanetarako leku bilakatu behar dugu, jolaserako, solaserako, lanerako, auzolanerako..."

Esan bezala, eguneko bileran nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute.

Gertuko bidaia San Migelek aurtan

San Migelek bidaia motza egin du aurtan. Ohiturari jarraituz, joan zen eguaztenean, San Migel egunean, santuaren zeruratzea egin zuten Angiozarren. Hurrengo egunean, perretxikotan zebilela, Esteban Garitanok aurkitu zuen santua, Amuskibarren.

Santua topatzeagatik 160 euroko saria eta bi lagunendako afaria eskuratu du Aldai-Egia auzoko Esteban Garitanok. Zorionak!

Erretiratuen hamabostaldi kulturala, urriaren 18tik 30era

E.M.


Gizartearen eboluzioa eta joerak. Edadetuak etorkizunean lelopean, Bergara eta Antzuolako erretiratuek antolatutako kultur hamabostaldia izango da urriaren 18tik 30era bitartean. Kultur hamabostaldiaren zortzigarren ekitaldia izango da aurtengoa.

Aurreko urteotan bezala, hitzaldiak, erakusketak, musika emanaldiak, lehiaketak edota kirol jarduerak antolatu dituzte erretiratuek. Esan bezala, kultur hamabostaldia urriaren 18an hasiko da; kartelaren aurkezpena egingo dute egun horretan eta,

era berean, Bergarako eta Antzuolako erretiratuen eskulan erakusketa irekiko dute Boni Lascuraineko egoitzan.

Hitzaldia dagokienez, lehenbizikoa urriaren 19an izango da, 19:30ean, Miguel Altuna aretoan. Ane Bustinduy Prospektiker enpresako zuzendariak Biztanleria zahartzea: ondorioak gaia jorratuko du. Gorka Eizmendi ingeniaria eta Xabier Ibartzabal medikuaren hitzaldiak ere egongo dira hamabostaldian.

Bestalde, urriaren 22an, belaunaldi arteko musika emanaldia izango da Mariaren Lagundiko elizan, 19:30ean.



Kultur hamabostaldiko hitzaldi guztiak Miguel Altuna aretoan izango dira.

ARTXIBOA





Opel. Ideia berriak. Auto hobirik.

Beste bost
arrazoi edukitzeko:

Segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna.



Opel Astra berria. Segurtasun handiena. EuroNCAP, 5 izar.



Opel Astra berriak EuroNCAP 5 izar lortu ditu eta goreneko puntuazioa ondorengoetan: alboko eta aurretiko inpaktua txoke proban eta umeei babesa Sedan trinko kategorian. SAFETEC sistema berritzaileak segurtasun aktiboa konbinatzen du, eta hau guztia du barne: IDSplus xasisa, faro moldakorrak, aurretiko aire-zakuak, segurtasun pasiboan berriz: aurretiko aire-zakuak, gortina aire-zakuak eta alboko aire-zaku handiagoak. Astra autoaren inguruan informazio gehiago nahi baduzu, bisita ezazu gertuen daukazun Opel banatzailea edo deitu 902 20 05 90 telefonora edo sartu gure webgunera: www.opel.es

Astra gama: kontsumoa (l/100 km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO₂ emisioa (g/km) 132tik 223ra.

Giauto

Olabarrena, z/g. Tel. 943 76 33 44/46.

BERGARA

MINGAINARITIRAKA



Maider Sedano

GAZTE INFORMAZIO BULEGOKOA

Urretxuarra da Maider, baina, bost urtetik gora daramatza Bergaran lanean. Bergarako Gazte Informazio Bulegoko arduraduna da bera; 28 urte dauka eta Pedagogia ikasketak egin zituen.

Noiz zabaldu zenuten Bergarako Gazte Informazio Bulegoa? Orain dela bost urte, 1999. urtean, hain justu, zabaldu genuen bulegoa, eta ordutik dihardut hantxe lanean.

Ze eratako informazioa bilatzen dute Bergarako gazteek? Garaiaren arabera izaten da hori; orain, batez ere, ikastaroen berri jaso nahi izaten dute. Udan, berriz, bidaien gaineko informazioa bilatzen dute, maiatzean, ikasketen gainekoa eta gero, berriz, lanaren gainekoa.

Gaur egun, zein da, zure ustez, gazteen arazo nagusia? Arazo bat baino gehiago dute; batetik, lan munduan egonkortasunik ez dute, eta gainera, etxebizitzak oso garesti daude.

Internet asko erabiltzen dute gazteek era guztietako informazioa eskuratzeko.

Bai, hala da; kontua da informazioa non bilatu jakin behar izaten dela; informazio asko dago Interneten, eta zein den egokiena jakitea ez da erraza izaten.

Zeu gaztetxoa zinenen, nora jotzen zenuen informazio bila? Ahal nuen toki guztietan; orientatzaileei, irakasleei... gai bakoitzaren inguruan, zekienari galdetzen nion nik. Gero, unibertsi-tatean, gazte informazio bulegoetara jotzen nuen.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Gazteekin harremana izatea.

Eta gutxien?

Informazioa sailkatzea, askotan, ez da erraza izaten.

Jakin badakigu parranda zale amorratua zarela. Jaiarik gustukoena?

Urretxuko Santa Lutzia jaiak. Dena dela, geroago eta parranda gutxiago egiten dut.

Bizitzeko toki bat?

Gustura zauden edozein toki; bat aukeratzekotan, Donostia.

Eta oportetara joateko?

Hondartza duen toki bat; adibidez, Sagunto, Valentzian.

Bukatzeke, amets bat?

Ahal dudan ondoen bizi izatea, bizitzak ematen dizkidan gauza onak aprobetxatuz, eta txarrak gaindituz.

AINZANE IRIZAR

KANPOTARRAKBERGARAN

SIRIWAN SI-ENG

47 URTE / THAILANDIARRA / ORAIN DELA 20 URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Erretiratzen garenean, urte erdiz hemen eta beste urte erdiz Thailandian bizi izango gara”

AINZANE IRIZAR

Hogei urte daramatza Siriwanek Bergaran bizi izaten. Bere etxean egin digu harrera, Martokan; nabari da etxean ere thailandiarra dela: dekorazioan, irudi ugari ditu, alde hartakoa dela esaten digutenak.

Thailandiako hiriburuan bizi zen Siriwan, Bangkok-en, hain zuzen ere; hantxe ezagutu zuen bere senarra dena, Julio. “Bost urteko harremana eta gero, Bergarara etorri nintzen bizi izatera”, azaldu digu Siriwanek. Bost urte horietan, Juliok hainbat

“Hona iritsi nintzenetik asko gustatu zitzaidan Bergarako bizimodu lasaia”

bidaia egin zituen Thailandiara.

Begarara etorri baino lehen, hala ere, Siriwan Suitzan ere bizi izandakoa zen, bere ahizpa batekin batera. “Horrela, Bergarara etorri nintzenean, aldaketa ez zen hain nabarmena izan”, gogoratzen du.

Gaur egun, estetizista moduan lan egiten du, bere etxean. Aurretik, baina, ile-apaindegi batean lanean jardundakoa da; lan horrek, jendea ezagutzeko aukera ona eman zion Siriwani.

Hasiera-hasieratik herritarrek oso harrera ona egin ziotela kontatu digu:

“Begararrak, eta euskaldunak, oro har, oso jatorrak dira; hasiera-hasieratik oso harrera ona egin zidaten, eta gaur egun, lagun asko eta oso onak ditut herrian”.

BERGARA ASKO GUSTATZEN ZAIO

Euskal Herria eta Bergara oso gustuko dituela azaldu digu: “Hona iritsi nintzenean, hemengo paisaia berdeek eta mendiek, batez ere, liluratu egin ninduten; oso ederra da Euskal Herria”.

Gainera, Bergarako bizimodu lasaia asko preziatzen du: “Kontuan hartuta ni Bangkok hiriburuakoa naizela, asko gustatu zitzaidan herri honetako lasaitasuna”.

Gaztelaraz egin dugu berba berarekin; hizkuntza ikastea nahiko kostatzen da esan digu, horixe izan zela hasieran lan handiena eman ziona. Euskarari dagokionez, berriz, ikasteko asmorik ere ez dauka; izan ere, berarendako zaillegia dela iruditzen zaio.

THAILANDIARA BEGIRA

Hogei urte Bergaran bizi izaten daraman arren, eta hemengo bizimodura ondo moldatu den arren, Thailandiaren hutsunea nabaritzen du Siriwanek. “Batez ere, familiaren, lagunaren eta hango bizimoduaren hutsunea nabaritzen ditut”, azaldu digu. Urtean pare bat aldiz joaten dira senarra eta biak hara. Etorkizunaren gainean galdetuta, gauzak oso argi dituela erakutsi digu Siriwanek: “Julio eta biok erretiratzen garenean, urtean sei hilabete hemen, Bergaran, eta gainerako sei hilabeteak Thailandian bizi izatea da nire ametsa. Julio ere nirekin bat dator horretan”.

Horretarako, etxea eraiki dute Bangkok-etik gertu; aurtengo abuztuan inauguratu dute etxe hori. Bizpahiru egun iraun duen jai bat antolatu dute etxea bukatu dutela ospatzeko. Gauzak horrela, hemendik hamar bat urtera, erretiratzen direnean, Thailandian eta Bergaran bizi izateko moduan egongo dira Siriwan eta Julio.



IAHA!
Antzuolako Hizkuntza Akademia
zabaldu berria ANTZUOLAN
ZATOZ ALEMANA IKASTERA!
Irakasle tituluak
Kalegoi 20
Tel.: 943 75 21 11 • 649 318 385

Giartzu
KIROL ELKARTEA
Tai-Chi eta Chi Kung eskolak ematen dira (txinatar gimnasia tradizionala)
Ostegun eta ostiraletan 16:00-17:00
Boni Laskurain 3 behea
Tel.: 943 76 35 71 20570 BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

ORRASKI
ile apaindegia
ORDUTEGI BERRIA
- Asteartetik ostegunera 9:00etatik 16:00etara
- Ostiratetan 9:00etatik 19:00etara
- Larunbatetan 8:00etatik 14:00etara
San Pedro 6 - Tel.: 943 76 47 01

PIRAGUISMOA

Beti-Bustiko Leire Fernandez eta Markel Cestafe, Euskadiko selekzioarekin Lleidan

Kadete mailako Euskadiko selekzioarekin Foixen (Frantzia) lehiatuko dira domekan

EDU MENDIBIL

Leire Fernandez eta Markel Cestafe Beti-Busti taldeko piraguistak Euskadiko selekzioarekin lehiatuko dira aste bukaeran Foixen (Frantzia). Nazioarteko txapelketa horretan euren benetako maila ezagutzeko aukera izango dute piraguista bergarrek.

Markel Cestafek (16 urte) eta Leire Fernandezek (14) kadete mailako Euskadiko selekzioarekin hartuko dute parte Foixeko proban. Ur bizietako K-1 slalom proban lehiatuko dira domekan, urriaren 10ean, eta nazioarteko piraguista onenetakoen aurka neurtuko dituzte indarrak. Gaur, egubakoitza, hasi eta martitzenera bitartean kontzentrazioa egingo dute Euskadiko selekzioarekin Seo d'Urgellen (Lleida). Euskadiko selekzioaren teknikariak Xabi Taberna eta Iñaki Gallastegi bergararra dira.

ESPAINIAKO TXAPELKETAN BIKAIN

Leire Fernandezek eta Markel Cestafek maila bikaina azaldu dute amaitzean dagoen denboraldian. Leire hirugarren postuan sailkatu zen uztailean jokatutako Espainiako txapelketan eta Markelek, berriz, laugarren



Leire Fernandez (hirugarrena ezkerretik) eta Markel Cestafe (eskuako lehena) Beti-Bustiko beste piraguista batzuekin.

postua eskuratu zuen. Lleidan ur falta zela-eta, Espainiako Txapelketa Orthezen (Frantzia) jokatutako behar izan zen aurten.

Beti-Busti taldeari dagokio-

nez, denboraldi ona egin dutela azaldu digu Iñaki Gallastegi entrenatzaileak: taldekako sailkapenean laugarren izan ziren Espainiako txapelketan. Era berean,

Markel Agirre eta Iraitz Artola, junior mailan, bigarren eta hirugarren izan genituen, hurrenez hurren. Eta Roberto Puyrekin batera, patruilako proban, zila-

rezko domina lortu zuten Agirrek eta Artolak. 12-23 urte bitarteko 15 piraguista dira Beti-Bustin gaur egun. Dagoeneko hasi dira hurrengo denboraldia gertatzen.

Bigarren senior mailako eskubaloi taldeak galdu egin zuen Elgoibarren

E.M.

Bergara KEko bigarren senior mailako eskubaloi taldeak galdu egin zuen domekan ligako lehen partidua Elgoibarren, 19-16. Muniategiren mutilek ez zuten zortea euren alde izan azken minutuetan.

Aurten senior mailako bi talde ditu Bergara KEk. Bi taldeek liga hasiera txarra izan dute. Lander Juaristiren taldeak 16-28 galdu zuen etxean Urdulizen aurka eta Josetxo Muniategiren taldea galtzaile atera zen Elgoibarren, 19-16. Azken minutuetan, bergarrek garaipena lortzeko aukera paregabea galdu zuten.

BEDERATZI TALDE GIPUZKOAKO LIGAN

Bigarren senior mailako taldea Gipuzkoako txapelketan lehiatuko da aurtengo denboraldian. Taldeko jokalariek ondo ezagutzen dute elkar, aurreko denboraldian gehienek (12 jokalarik) gazte mailako taldean jardun bai-



Bigarren senior mailako taldeak Arrasate hartuko du etxean hurrengo jardunaldian.

tzuten. Josetxo Muniategik jarraitzen du taldearen gidaritzan.

Ligan bederatzi talde izango dira lehen. Aste bukaeran atsean hartuko dute eta hurrengo jar-

dunaldian Arrasate hartuko dute etxean Josetxoren mutilek. Kadete mailako mutilek eta gazte mailako mutilek aste bukaera horretan hasiko dute liga.

SASKIBALOA

Bergara KEko kadete mailako taldeak Azpeitia hartuko du zapatu eguerdian Labegaraletan

Bergara KEko kadete mailako mutilen taldeak Azpeitia hartuko du bihar, zapatua, Labegaraletako kiroldegian.

Mikel Etxeberriak zuzendutako taldeak aurkari zaila izango du bihar, azpeitiarrak txapelketa irabazteko faboritoen artean baitira. Talde bergararra sasoi onean dago aspaldian.

PATINAJEA

Patinaje ikastaroa urriaren 16tik abenduaren 4ra bitarteko zapatueta, Zabalotegin

Kirol Zerbitzuak patinaje ikastaroa antolatu du, urriaren 16tik abenduaren 4ra bitartean, Zabalotegiko pilotalekuan. Eskolak larunbatetan izango dira, 10:00etatik 11:30era (hastapen maila) eta 11:30etik 13:00etara (hobekuntza maila). Izenematea Kirol Zerbitzuan, urriaren 14ra arte. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

IGERIKETA EGOKITUA

Gutxituei zuzendutako igeriketa eskolak izango dira Agorrosinen, egubakoitzetan

Kirol Zerbitzuak igeriketa egokituko ikastaroa eskaintzen du. Aipatutako ikastaroa gutxituei zuzendutakoa da, eta, aurreko urteotan moduan, hainbat maila izango dira. Era berean, gaztetxoek zein helduek eman dezakete izena. Bergaran eskolak egubakoitzetan izango dira, arratsaldean. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

PILOTA

Pilota eskola, 6-13 urte bitarteko gaztetxoendako


Izenematea zabalik izango da urriaren 29ra arte, Udal Pilotalekuan

E.M.

Bergara KEko pilota sailak 6-13 urte bitarteko gaztetxoei dei egiten die pilota eskolan parte hartzeko. Pilotarako zaletasuna duten gaztetxoek urriaren 29ra arte izango dute izena emateko aukera. Udal Pilotalekuko tabernan, kartazal baten barruan, argazkia, jaiotze data, izen-abizenak eta telefonoa ematea baino ez dute. Aurreko urteotan bezala, Reyes Azkoitia izango da Pilota Eskolako arduraduna eta berarekin batera Ander Mugu-ruza, Igor Apraiz, Ander Gabi-londo, Iker Zabaleta eta Beñat Iñarra arituko dira.

Txikienak, benjamin maila-koak, egubakoitzetan entrenatu-ko dira eta alebin eta infantil mailetakoei, berriz, martitzen eta eguenetan izango dituzte entrenamenduak.

Reyes Azkoitiaren arabera, pilota eskolak erantzun bikaina jaso du azken urteotan: "Gazte-xoen artean badao pilotarako zaletasuna. Iaz, esaterako, 70 mutiko izan genituen. Gehienak



Iaz 70 gaztetxo inguru aritu ziren pilota eskolan.

ARTXIBOA

ilusio eta gogo handiz etortzen dira eta pozgarria da benetan".

GABON SARIA GAUR

Gaur, egubakoitza, Gabon Sari-ko hainbat partidu jokatu dira Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasi-ta. Alebin eta infantil mailetako

partiduak izango dira.

Bestalde, atzo, eguena, Jose-ba Herranek lehen senior maila-ko banako partidua jokatu zuen Arrasateko ordezkararen aurka. Atzora arte, bi partidu iraba-zita eta bakarria galduta zeuzkan Herranek.

FUTBOLA

Gazte eta infantil mailetako taldeen eta nesken partidu bat bihar, zapatua, Ipintzan

Bihar, zapatua, lau partidu jokatu dira Ipintzan: goizean, infantil mailako taldeak Mutriku hartuko du, 10:00etan, eta ondoren, 12:00etan, bigarren gazte mailan, Bergara eta Amara Berri talde-ak izango dira aurrez aurre.

Arratsaldean, berriz, nesken futbol-8ko taldeak Almen talde-aren aurka jokatu du, 15:45ean hasita. Futbol jardunaldiarekin amaitzeko, lehen gazte mailako Bergara KEko taldeak Allerruren bisita izango du, 18:00etan.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

Urriaren 12ko zubia dela eta, aste bukaeran ez da jardunaldirik jokatu kiroldegian

Urriaren 12ko zubia dela eta, oraingo aste bukaeran ez da Labegarietako Futbito Txapelketako jardunaldirik jokatu kirolde-gian. Hala adierazi dute antolatzaileek.


Futbito Txapelketaren XIX. ekitaldia irailaren 25ean jarri zuten abian eta oraingo bi jardunaldi jokatu dira. Aurten 24 taldek dihardute lehian, bi multzotan banatuta. hurrengo jardunaldia datorren asteburuan, urriaren 16an eta 17an, jokatu da.

FUTBOLA

Preferente mailako futbol taldeak sailkapeneko azken tokian jarraitzen du

Zapatuan Urolaren aurka etxean bana berdindu eta gero, Berga-ra KEko preferente mailako futbol taldeak sailkapeneko azken tokian jarraitzen du. Josu Zubikaraik egin zuen mahoneroen gola zapatuan. Jokatuak bost jardunaldietan bi puntu besterik ez du lortu Igor Gordobilek eta Andoni Azkargortak zuzentzen duten taldeak.

Bergarak Ordiziari bisita egingo dio zapatuan, 16:00etan. Ordi-zia sailkapeneko 10. tokian dago, zazpi punturekin.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA



Langileentzako formakuntza ikastaroak

Ikastaro guztiak %100 diruz lagunduta
Lanbide kualifikazioen sistemarik lotzen zaion moduloen katalogoa

FABRIKAZIO MEKANIKOKO ARLOA

ZKK Fagor 8050/55 T Tornuan programazioa	40
Fanuc Tornuan programazioa	40
ZKK Fagor 8050/55 M Fresagailua	46
ZKK Fagor 8050/55 T Tornuan programazio eta exekuzioa	40
Fanuc Tornuan programazio eta exekuzioa	40
Fagor 8050/55 M. Fresagailu programazio eta exekuzioa	46
CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa	30
CNC hari bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa	30
Abiadura Handiko Mekanizatua	50
CAD - CAM. UNIGRAPHIC	40
Mekanika diseñua. 3D modelaketa (SOLID WORKS). Modelatu eta planoak	30
Mekanika diseñua. 3D modelaketa (SOLID WORKS). Multzoak	30
Marraketa 2D irudikapen grafikoa (AUTOCAD)	40
Mekanika diseñua. 3D modelaketa (SOLIDEDGE). Modelatu eta planoak	30
Mekanika diseñua. 3D modelaketa (SOLIDEDGE). Multzoak	30
Planoen irakurketa	50
Saiakuntza suntsitzaileak eta ez-suntsitzaileak	40
Elektrodo eta erdiautomatikorekin Soldadura	50
Lan arriskuen prebentzioa. Oinarrizko maila	40
Tratamendu Termikoak eta y Metalografia	30
Tornu eta fresagailuaren ebakuntza baldintzetarako erraminta aukeraketa	30
Egiaztatze Dimensionala	40
Egiaztatze Tridimensionala	30

ELEKTRIZITATE ARLOA

Oinarrizko Automatismo Programariak. S7 - 200	35
Automatismo Promagarri Aurreratuak. S7 - 200	40
Muntaia Domotikoak I. Maila. Sistema zentralizatuak	40
Muntaia Domotikoak II. Maila Sistema deszentralizatuak. Bus EIB	40
Elektrotekniko automatismoak	40
CAD elektrikoak. ESQUEMALEC	30
Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak	40

Elektropneumatika Industrial. Maila I	60
Elektroneumatika Industrial. Maila II	60
Baimendutako instalatzaile karneta ateratzera zuzendua. Urte beteko lan esperientzia	40
Baimendutako instalatzaile karneta ateratzera zuzendua. Esperien-tziarik gabe	100
Hidraulika	36

ADMINISTRARITZA ETA INFORMATIKA ARLOA

Ordenagailu pertsonala	40
Microsoft Access I	20
Microsoft Excel I	20
Microsoft Word I	20
Microsoft Power Point I	20
Internet-era sarrera	20
Windows NT	20
Web dreamweaver orriaren diseinua	20
Photoshop bidezko argazki trataera	40
Bideoa	40
Nominak eta Gizarte Aseguruak	40

INDUSTRI ANTOLAKETA ARLOA

"5s"en metodologia	24
--------------------	----

PLASTIKO ETA KAUTXOGINTZA ARLOA

Termoplastiko injekzioa	30
Plastikoen teknologia	60
Kautxoaren teknologia	60
Polimeroen hastapenak	30
Kautxoaren teknologiaren hastapenak	30
Plastikoen eraldaketa	30
Material polimerikoen karakterizazioa	30
Analisi termikoa eta erreologia material polimerikoen karakteri-zazioa aplikatutakoa	30

Ikastaro guztiak astelehenetik ostegunera emango dira. Ordutegia 18:00-20:30ra • Ikastaroen hasiera eta amaiera matrikularen arabera egingo da

Ibargarai 1 • Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40 • Faxa: 943 76 38 41 • Posta-e: imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarraillak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
ARROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Gremioen Gida

zure etxearen
osasun onerako



AGIRRE
MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

•Orotariko pintaketa lanak



Aribar pol. C-4, S.
Juan auzoa
943 76 02 78
Faxa: 943 76 53 34

•Pintura
•Dekorazioa

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

•Teilatu, fatxada,
sukalde eta
bainugelen
berrikuntza



Cantero Instalaciones

San Miguel 8/10
607 78 70 58

•Iturgintza
•Akreditazioa: gas
ontziratua
•Galdaren mantentzea



AZKARATE

Telleria 19, B-0-2
B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020

• Ateak, leihoak,
horma-armairuak,
parketak, sukaldeak,
tarimak

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

•Orotariko arotz lanak
•Sukaldeak
•PVC leihoak

BERGARA
Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

•Orotariko pintaketa lanak
•K-21 agiria



UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

•Orotariko arotz lanak
•Apainketa,
soruak,
leihoak,ateak





Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 36. alia

IEPA LAGUNOK!

Iepa lagunok!
Hementxe nator gaur-
kuan be zuekin tarte eder
bat pasatzeko asmo-
tan. Ezagutzen dozue
aurreko asteko lehia-
keta irabazi zabena?
Hurrenguan zuen burua
argazki horretan ikusi nahi
baldin badozue, animau zaittezte lehiaketan
parte hartzera! Gaiñontzeko alietan moduan,
gaurkuan be danetik edukiko dozue.
Datorren asterarte, ondo izan!!



URREZKO ARAUAK

- Baietz zuk baiño piku gehiago jan!
- Eskerrak idixak ez daben kaka egitten ze bestela neriak egingo leuke!
- ~~A ke zuk baiño piku gehiago jaten dot!~~
- ~~Eskerrak idixak ez daben kaka egitten porke bestela neriak egingo leuke!~~



TXISTIA

Gizon bat gora begira zoian kalia eta txori
batek kaka egin zotsan. Orduan pentsatu
zeban berekiko.
- Eskerrak idixak ez daben kaka egitten ze
bestela neriak egingo leuke!



JOLASA

“Baietz zuk baiño...”

Honako jolasian arituko diren partaidiak elkartu eta hauetako batek
desafio edo erronka bat adieraziko dotsa bestiari. Adibidez:
“baietz minutu batian zuk baiño galtzerdi gehiago jantzi!”
Beste partaidiak jolasarekin jarraitu nahi badau, “Ezetz!” esango
dotsa. Une horretan hasiko da jolasa. Galtzerdi gehixen jantzen dittuen
jokalarixak luzatuko dau ondorengo erronkia.



Bi lagun indartsuena nor dan eztabaidatzen
dihardute. Karretilla bat dauka batek eskue-
tan eta esaten dotsa bestiari:
- Baietz nik karretilla honetan zuk eruango
ez ziñuken pisua eruan!
- la, ikusi deigun!.- esaten dotsa bestiak.
- Igo karretillara eta ikusiko dozu!!

IRABAZLIA



JOSEBA ELORZA
San Martin ikastola
8 urte

JUAN ZAN ASTEKO LEHIAKETEN ERANTZUN ZUZENAK:

Lotu bikotiak

1. E 2. A 3. B 4. D 5. F 6. G

Fruituen jolasa

= 1 = 3 = 1 = 4 = 6

ELKARRIZKETA

MAYRA JIMENEZ/BEART-EKO PINTURA ETA MARRAZKETA IRAKASLEA

“Pintura oso zaletasun polita da, eta asko erlaxatzen du, gainera”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mayra Jimenezek Oihana Garitanorekin batera pintura eta marrazketa eskolak ematen ditu. Beart-ek (Bergarako artisten elkarteak) Bolun daukan lokalean elkartzen dira zapatu goizetan gaztetxoei irakasteko.

Bergarako artisten elkarteak zer eskaintzen die ikasleei?

Pintura eta marrazketako eskolak ematen ditugu bi taldeetan: lehenengoan 5 eta 10 urte bitarteko umeak daude; bigarrenean, berriz, 10 eta 14 urte artekoak. Txikienek pinturarako tenperak erabiltzen dituzte batik batik; gainontzekoek, berriz, olioak eta beste zenbait material. Aurten akuarelekin ere hasiko gara.

Beste urte batzuetan ere jardun duzu irakasle lanetan. Zer moduzko esperientzia da?

Zazpigarren urtea dut aurten, eta oso lan polita da. Ikasle batzuk urte askoan dabilta nirekin eta konfiantza daukagu.

Bergaran bada gozagarriko zaletasunik?

Badaude gure ikasleen artean oso onak direnak. Esku ona daukate eta txikitatik honetarako balio dutela ikusten zaie. Batzuk hobeak dira pinturan eta besteak marrazketan. Hala ere, nagusien taldean pintura gehiago gustatzen zaie marrazketa baino. Horregatik ahalegin berezia egin behar izaten dugu marrazketa ere egin dezaten, pinturarako oinarritzkoa baita. Azken helburua koadro bat egitea da, eta horretarako marrazkian islatzen dugu egin nahi duguna, koloreak...

Zuk zein arlo duzu gustuko?

Arte Ederrak ikasitakoa naiz eta karreraren marrazketa asko egin nuenez, orain hori dut gogokoan. Argazkilaritzan ere jarduten dut eta pintura ere egiten dut. Oraindik ez dut nire lanekin erakusketarik egin, baina badaukat noizbait erakusteko asmoa.



“Gure eskoletara marrazketa eta pinturarako gogoz etortzea besterik ez dugu eskatzen”

Edozein joan daiteke ikas-taroetara?

Bai, gure eskoletara marrazteko eta margotzeko gogoarekin etortzea besterik ez dugu eskatzen. Gehienak gustura etortzen dira, lan politikak egin nahi dituztelako, ez denbora pasatzera.

Nolako lanak egiten dituzte ikasleek?

Denetariko gaiak lantzen dituzte. Askotan guk emandako laminen kopiak egiten dituzte, beste batzuetan eurek egindako marrazkiak koadroetara eramaten saiatzen dira. Hurrela, nork bere estiloa ateratzen du.

Nola animatuko zenuke jendea zuen eskoletara joateko?

Pintura oso zaletasun polita dela esango nieke, asko erlaxatzen duena, gainera; aste osoan eskolan eta handik kanpo lanpetuta ibili ostean, lasai egiteko modukoa. Eskolak zapatu goizetan izaten dira, eta norbaitek etorri nahi balu gurekin harremanetan jarritzea besterik ez du egin behar.

KULTURAPILULAK

Emakumeek egindako eskulanekin erakusketa ipiniko dute kultura etxean

Bergarako Emakumeen Kultura Elkarteak Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuaren laguntzaz, emakumeek egindako eskulanen erakusketa antolatu du. Kultura etxean ipiniko dute eta urriaren 13tik 20ra izango da bisita egiteko aukera. Orduetara honako hau da: astelehenean egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jai egunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Ska, punk eta rock doinuak asteburuan gaztetxean lau musika talderen eskutik


Bi kontzertu antolatu dituzte gaztetxekoek asteburu luzerako. Gaur, urriak 8, Elorrioko Trapatoni eta Orioko Silikosis taldeek jardungo dute. 22:30ean eta emanaldian ska doinuak izango dira nagusi. Bestalde, urriaren 12an, martitzenean, 20:30ean izango da kontzertua. The phantom limbs eta Sixteens talde estatubatuarrek jardungo dute. Punk eta rock iluna egiten ditzuzte hurrenez hurren.

SFDK eta RushPlac-ka taldeen kontzertuak gaur Jam aretoaren urteurrena ospatzeko

Bi talderen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan. SFDK Sevillako taldeak hip-hop doinuak ekarriko ditu Bergarara. Talde honekin batera RushPlac-ka taldekoek jardungo dute, hauek hardcore musika eskainiz. Aretoko ateak 22:00etan zabalduko dituzte. Sarrerek aurrez 13 euro balio dute eta bertan 15 euro.

**Aukeran dantza konpainia Filipinetan**

Edu Muruamendiaraz dantzariak zuzentzen duen Aukeran konpainiak *Izena duen guztia omen da* aurkeztuko du Manilan, Filipinetan, bihar, zapatua. Cervantes Institutuak antolatutako kultura eta arte jaialdian hartuko du parte, eta Aukeraren emanaldiarekin dantzaren aberastasuna erakutsi nahi-ko dute 1.800 lagunendako tokia duen areto batean. //A.

ETXAGI JATETXEA**Eraman eguneko menu zure etxera**

E, TXO!

GUREGAIK/ 'GOMENDATZEN DIZUT...' LEHIAKETA

Amaia Morenoren gomendioa saritu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jadanik amaitu da **Gomendatzen dizut...** lehiaketa. Bergarako Gazte Informazio Bulegoan zortzi gomendio jaso dituzte, eta parte-hartzaileen artean egindako zozketan Amaia Morenok jaso du saria.

Gomendatzen dizut... lehiaketak eman du aurten berea, eta jadanik zozketako irabazlea ere eman dute ezagutzera.

Ibarreko hiru gazte informazio bulegoetan guztira 41 gomendio jaso dituzte, horietatik zortzi Bergaran.

Zortzi gomendio jaso badira ere, zazpi lagunek egindakoak izan dira, eta aipatzekoa da guz-

tiak neskak izan direla; gomendio guztiak euskaraz egin dituzte; horietatik bi e-posta bidez jaso dituzte eta besteak bulegoan.

Lehiaketa gazte bulegoek antolatu arren, gomendioak egin dituztenen adina 19 eta 46 urte bitartekoa izan da.

Gomendio motari dagokionez, gehienak lekuen ingurukoak izan dira: lau, hain zuzen ere, baina ostatuak, tabernak eta paisaiak ere aipatu dituzte.

Orain, jasotako gomendioak hurrengo bidaiariei helaraziko dizkiete.

SARIA

Parte-hartzaileen artean landetxe batean asteburuko egonaldia zozketatu dute bulego bakoitzean, eta



AMAIA MORENO

Gascona Boulevard de la sidra bisitatzeko gomendioa egin du Amaia Morenok.

Begarakoan Amaia Morenok jaso du saria.

Amaia bergararra da, baina Oviedon bizi da, eta bertako *Gascona Boulevard de la sidra* bisitatzeko gomendioa egin du. Bere esanetan, "euskaldunak etxean bezala sentitzen garen txokoa da, eta sagardo paregabea dastatzeko aukera dago bertan".

ELEKTRIKALDIA JAIALDIA ASTEBURUAN DONOSTIAN

Musika elektronikoaren zaleen topaleku izango da asteburuan Donostia, Elektronikaldia 2004 jaialdia egingo baita bertan. Egiako Gasteszena aretoan DJak eta zuzeneko emanaldiak egongo dira; gaur 23:00etan eta zapatuan 00:00etan hasita. Zapatuan, bestalde, 11:00etatik 22:00etara Donostia Elektronikoa 2004 jaialdiko irabazleen emanaldiak izango dira Okendo kultura etxean. Domekan Audioblab-Artelekun 18:00etan hasiko dira zuzeneko emanaldiak.

ARGAZKI LEHIAKETA KIROLGI FUNDAZIOAK ANTOLATUTA

Gipuzkoako kirola gai hartuta kirol argazkien lehiaketa antolatu du Kirolgi fundazioak. Zuri-beltzean zein koloretan bidali ahal izango dira argazkiak, atal bakoitzean gehienez ere lau, Neurria, berriz, librea izango da, baina ez 30x40 baino handiagoa. Lanak aurkezteko epea urriaren 20an amaituko da. Informazio zabalagoa nahi duenak 943 45 34 98 telefonora dei dezake, edo www.kirolgi.org helbidean kontsultatu.

JULENE AZPEITIA IPUIN LEHIAKETA ZUMAIAN

Zumaiako Udalak Julene Azpeitia ipuin lehiaketa antolatu du. Ipuinen gaia librea izango da, baina lanek euskaraz idatziak eta originalak izan beharko dute. Ipuinek gutxienez hamar orri izan beharko dituzte makinaz idatzita eta lerro biko tartarekin. Lanak Zumaiako udaletxera bidali beharko dira eta interesatuei informazio zabalagoa 943 96 50 25 telefonoan emango diete.

LOTSABARIK/ Amaia Mendibil

"Bidaiatzea ez dut batere atsegín"

I.A.

Kostata baina azkenean lortu dugu Amaia Mendibilek gure galderei erantzutea. Besteeengan jatorrasuna estimatzen du, eta berak ere jator eta azkar asko erantzun die egindako galdera guztiei.

• **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**

Gazteendako gauza gehiago ipiniko nuke. Udan parkean egoten gara baina neguan ez dauka nora joanik.

• **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**

Marka ezagunen pegatinak ditut. *Loreak mendian*, esaterako.

• **Telebistako saiurik gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Día a día eta antzerako saioak ez zaizkit batere gustatzen. *Vaya semanita*, berriz, oso gogoko dut.

• **Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?**

Maria Teresa Campos ezin dut jasan. Iban Garatek, berriz, jatorra dirudi.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Gezurrak.

• **Zer estimatzen duzu besteengan?**

Jatorrak izatea.

• **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Inguruko jendeari. Familiari eta lagunei, batik bat.

• **Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Akatsa, erraz haserretzen naitzela, baina gero segituan adiskidetzeko. Bertute bat, berriz, pertsona alai izatea.

• **Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Ez dakit, oso zaila da ligatze kontu hori.

• **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**


Jatorra eta ahal dela fisikoki oso zatarra ez izatea.

• **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**

Ez dut bidaiatzea batere atsegín, Bergaran geratuta hobe.

• **Etorkizunerako amets bat?**

Ongi bizi izatea eta lanean jardutea, non ez dakit.




ADINA: 17 urte • IKASKETAK: DBHko 4. maila (Dibertsifikazioa) • ZALETASUNAK: Karatea • LIBURU BAT: John Katzenbach-en *El psicoanalista* • FILM BAT: *La milla verde* • MUSIKA TALDEA: Berri Txarrak • KIROL TALDEA: Reala



TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez



BONOFOTOA



Ariznoa plazarekin bat egiten duen kale baten daude aldaba hauek. Non?



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBIZBAR

BERGARAROSPETSUAK

Gabriel Mendizabal (eta 2)

KOLDO PEREIRA

Espainiako Independentziako gerran zorte handia izan zuen, eta ausardia paregabea ere bai. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako dibisioko buru zela, 1813ko abuztuaren 31ko ekintza odoltsu eta ospetsua zuzendu zuen Irunen. Kondekoraziorik garrantzitsuenak eman zioten: San Fernandoren Gurutze Handia. San Hermenegildoren Gurutzea ere bai.

Garai hartako idazlan batean honakoa aipatzen da Mendizabali buruz: "Bizkaiko mendiak ere zeharkatu zituen Mendizabalen gerrillak. Jatorri apaleko gizona zen Mendizabal, eta abertzale sutsua. Hainbat lagunekin batera, frantziarrak kikildu eta mendean hartu zituen. Euskaldun petoa zen, neurrikoa, mardula, arina, tematia, ausarta eta gorputzaren beharren edo eguraldi txarraren aurrean men egiten ez zuena". Astorgako konde titulua ere bazuen Mendizabalek.

Kontseilu Goreneko ministro izan zen, eta Gerra eta Itsas Armadako Auzitegi Bereziko burua zela hil zen. Udaletxean Mendizabalen erretratu bat dago, Vicente Fernandezek egina, 1833. urtean hil zen.

Mendizabalek 1813ko abuztuaren 31ko ekintza odoltsu eta ospetsua zuzendu zuen Irunen

GALDEDEBALDE

1.

Zein egunetan zeruratzen dute San Migel santuaren irudia Angiozarren?

- A/ Irailaren 30ean.
- B/ Irailaren 27an.
- C/ Irailaren 29an.

2.

Nor da Beti-Busti piraguismo taldeko entrenatzailea?

- A/ Inazio Roman.
- B/ Iñaki Gallastegi.
- C/ Joxe Petrirena.

3.

Zein herrialdeetan egingo du emanaldia aste bukaeran Aukeran dantza konpainiak?

- A/ Filipinetan.
- B/ Japonian.
- C/ Sirian.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LEIRE UGALDErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Leire! Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Elizak: San Pedro, Santa Marina eta Angiozarko San Migel. Etxea: Jauregi etxea.** / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarki txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


Keler 18 De Luxe

Seiko packa, 25 cl.

1,98€

329 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!




Irun

Marra batek iragana eta etorkizuna bereizten ditu. Ausartuko zara hura zeharkatzen?



ALTEA Berria. Zeharkatu marra.

Batez besteko kontsumoa: 5,5 - 8,5 l/100 km. CO2 isurpena: 149 - 203 g/km



Informazio zehatzagoa:

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxa: 943 76 47 51



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Junior mailako saskibaloit taldea, 1979

Aurtengo denboraldirako lau saskibaloit talde izango ditu Bergara KEko saskibaloit sailak. Senior eta junior mailetan, mutilen taldeak izango dira eta kadete mailan, berriz, mutilena zein neskena.

Bergara KEko saskibaloit saila 1977-78 denboraldian jarri zuten abian. Hasiera ez zen erraza izan, ez zegoen azpiegitura egokirik-eta. Alde batetik, taldeak gidatzeko entrenatzaileak lortzea zaila zen, horretarako gertatutako oso jende gutxi zegoelako. Bestalde, zaleak erakartzeko lan dezente egin behar izan zuten saskibaloit saileko arduradunek. Poliki-poliki zaleen kopuruak gora egin zuen eta gero eta jende gehiago joaten zen partiduak ikustera.

Alboko argazkia 1979. urtekoa da, eta bertan agertzen direnek junior mailako taldea osatzen zuten. Taldeak San Martin plazan eta Mariaren Lagundian jokatzen zituen etxeko partiduak. Argazkia Mariaren Lagundiko lorategian ateratakoa da eta honako hauek dira bertan azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jesus Rodriguez entrenatzailea, Mikel Balentziaga, Jose Javier Tarres, Jose Ignacio Oiartzabal eta Aitor Eraña entrenatzailea.

Makurtuta: Inaki Aginagalde, Nartxi Azkargorta, Jose Ramon Irigoien, Joseba Pereira eta Inaxio Ugarte.

Argazkia: BKEko artxiboa.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrerakalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

IRURAK MARGOAK DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53	Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13
--	---------------------------------------

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

Marrazketa eta pintura eskolak

M^a Paz (irakaslea)
Zubieta • Tel.: 943 76 17 32



NAGUSIAK:
Eguna: Astearte eta ostegunetan
Ordua: 18:30-20:00

GAZTEAK:
Eguna: Astelehen eta asteazkenetan
Ordua: 18:30-20:00

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko urriaren 8a / 217. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Lau taldek egin dizkiete iradokizunak Udalak proposatutako arau aldaketari

AINZANE IRIZAR


Arau subsidiarioetan hainbat aldaketa egiteko asmoa dauka Udalak. Aldaketa horien gaineko iradokizunak egin ahal izateko aukera egon da irailean, eta honakoek aurkeztu dituzte euren iritzia: Gertu Gaek, Zutik-ek, Beheko Auzoko bizilagunek eta herritar batek.

Arauen aldaketekin, Udalaren helburua da maristen eraikina zegoen inguruan eta Sagasti auzoan hainbat proiektu egitea: kultura eta gizarte jardueretarako ekipamenduak prestatu eta etxebizitzak eta garañeak eraikitzea.

Aldaketan aurrerapena jendurrean jarri zuen Udalak, herritarrek iradokizunak egiteko. Hiru taldek eta herritar batek aurkeztu dituzte iradokizunak.

GERTU GAE ETA ZUTIK

Bi talde politiko hauek bat datoz hainbat planteamendutan; besteak beste, gizarte eta kultur etxea maristen eraikina zegoen tokian egin beharko litzakeela; proiektu



Maristen eraikina zegoen inguruko arau subsidiarioak aldatzeko asmoa dauka Udalak.

tuen bideragarritasun ekonomiko ziurtatuko duen txostena egin behar dela; Beheko eta Eguzki auzoetako bizilagunen bizi-kali-

tatearen gainean euren kezka ere erakusten dute. Gertu Gaek dio gizarte etxea hantxe eginda, eta ez etxebizitzak eraikita, bizibe-

rrituko dela inguru hori. Zutik-ek, berriz, Udalaren asmoak betetzen badira, "auzotarrek bizi-kalitatea galduko" dutela dio.

ARTXIBOA

Beheko Auzoko bizilagunek ere idatzi bat aurkeztu dute. Auzoak, Udalak planteatutako proiektuen ordez, hainbat hobekuntzaren beharra duela adierazi dute, eta oraingo kirol gunea dagoen lagatzeko eskatu. Herriak behar dituen proiektuak aurrera ateratzeko finantziario bide berriak bilatzeko eskatu diote Udalari. Bestalde, Udalak planteatzen duena "dirua erraz" ateratzeko bidea dela adierazi dute.

Udalaren esanetan, euren planteamenduen oinarria da "baliabideen optimizazioa". Herriko ekipamendu nagusien dako tokirik egokiena Sagasti da Udalaren ustez, herri erdian dagoelako eta iristeko erraztasunengatik, besteak beste. Maristen eraikina zegoen moduan eraikitzea, berriz, Beheko Auzoa isolatzea izango litzateke.

Jasotako iradokizun guztiak arauen aldaketa egiten diharduten profesionalen esku laga ditu Udalak; behin guztiak aztertuta, arauak aldatzeko dokumentua idazteko irizpideak eta helburuak zehaztuko dituzte.

PILOTA

Herri mailako pilota txapelketarako izena emateko epea zabalik dago hilaren 15era arte

AINZANE IRIZAR

Urtero moduan, Olalde pilota elkarteak eskuz binakako Herri Mailako Pilota Txapelketa antolatzen du.

Bi mailatan jokatu dute txapelketa. Hamabost urtetik gorako edozein herritarrek parte hartu ahal izango du txapelketa horretan, eta hamar euro ordaindu beharko dute. Pilota goxoaren jokatu dute.

Izena emateko epea datorren asteko egubakoitzera arte, urriak 15, dago zabalik. Horretarako, Olalde elkartearen kide hauengana jo dezakezue: Juan Tomas

Erostegi, Balendin Zabalo, Josu Zabalo edo Juan Simon Aristi.

Antolatzaileek oraindik zehazteke dute noiz hasiko diren txapelketako partiduak; dena dela, datak zehazten dituztenean jakinaraziko diete pilotariei.

GUZTIEK GALDU DUTE

Gipuzkoako Klubaren Arteko Txapelketa jokatzeko dihardute Olalde elkartearen pilotariak. Aurreko asteburuan, nagusiek zein kadeteek, galdu egin zituzten partiduak. Nagusiek 22-8 galdu zuten Oskarbireren aurka; kadeteek, berriz, 22-13, Zazpi-Iturriren aurka.



Iazko txapelketan finalerdiak jokatu zituzten bi bikote.

ARTXIBOA

LABUR

Juan Antonio Iturberi 300 euroko isuna jarri diote

Udalak bere proiektuen herri emateko jendurreko aurkezpena egin zuen urtarrilaren 14an. Herritar talde batek kale agerraldia egin zuen. Herriaren hitza errespetatu zioen pankarta batekin. Ekin-tza hori zela eta, legez kanpo lagatutako Gertu Gae plataformako zinegotzi Juan Antonio Iturberi 300 euroko isuna jarri diote. Horren harira, honako adierazpenak egin ditu Gertu Gaek: "Espainiako legediak ezarritako eta EAJk eta EAK aprobetxatzen duten apartheid politikoa gainditzeko egin beharreko guztiak egiten jarraituko dugu".

ELKARRIZKETA

BEATRIZ EGIZABAL/OIHULARI KLOWN TALDEKO KIDEA ETA ANTZERKI IKASTAROKO IRAKASLEA

“Gorputz espresioa lantzen eta lotsak alde batera lagatzen ikasiko dugu ikastaroan”

Idolaz euskara elkarteak antolatuta, antzerki ikastaroa eskainiko dute urriaren 19tik aurrera. Oihulari Klown taldeko Beatriz Egizabal eta Cesar Marcos izango dira ikastaroko irakasleak. Beatrizekin berba egin dugu guk.

Zer ikasi ahal izango da antzerki ikastaroan?

Ikastaro hau ez da, inola ere, antzerkigintza profesionalaren mailakoa izango. Gorputz espresioa lantzen ikasiko dugu, jendearen aurreko beldurrak alde batera lagatzeko, lotsak galtzeko... Dena dela, helburu nagusia da ondo pasatzea. Eta guzti hori, zela, ez, euskaraz.

Hortaz, ikastaro hori terapeutikoa dela esan dezakegu.

Terapia hitza oso serioa iruditzen zait, baina, bai, egia esan, terapeutikotik asko dauka antzerkigintzak; izan ere, espazio ireki bat da, gure gorputzarekin jolas egiten dugu antzerkian, eta eguneroko bizitzan egin ezin ditugun gauzak egiteko aukera eskaintzen digu. Hori, noski, terapeutikoa da. Gainera, ikastaroaren helburua ondo pasatzea da, moztrotzea, elkarrekin barre egitea,



OIHULARI KLOWN

eta hori guztia ere terapia bat izan daiteke gutako gehienondako.

Zeini dago zuzenduta?

Adin guztietako jendeari; umei ez, baina, gainerakoan, interesa duten herritar guztiei. **Zure ustez, aktore sena berezkoa da edo ikasi egiten da aktore izaten?**

Galdera sakona da hori; nik

uste dut ez dela sen berezirik behar. Dena dela, pertsona bakoitzaren izaerak eragin handia dauka; adibidez, badago jendea, eskenatoki baten gainean sentitzen duen beldurra gainditu ezin duena. Baina, berez, gorputzarekin espresatzeko gaitasuna guztiok daukagu. Gero, noski, lan handia egin behar da aktore izaten ikas-

teko, maila teknikoan, batez ere. **Astero izango al dituzue saioak?**

Bai, halaxe da; lau martitzenan elkartuko gara urriaren 19an hasita, bi orduz: 18:00etatik 20:30era, hain justu. Oraindik ez dakigu zenbat jendek eman duen izena, baina, seguru nago ezin hobeto pasatuko dugula.

LABUR

Erakusketak zaintzeko jendea behar dute

Udalak antolatzen dituen erakusketak zaintzeko lan-poltsa osatu nahi dute. Erakusketak asteburutan izaten dira, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena.

Erretiratuek irteera egingo dute Bilbora

Urriaren 21ean, eguena, Bilbora irteera egingo dute erretiratuek. Hantxe, tranbian ibiliko dira; gero, Trapagara joango dira eta arratsaldean Bilbora itzuliko dira. Txartelak 24 euroren truke jarriko dituzte salgai, erretiratuen elkarteak, hilaren 14an eta 15ean, 18:00etatik 19:30era.

Nagusiek eta kadeteek galdu egin zuten

Neskek bina egin zuten aurreko zapatuan, Urkiren aurka. Kadeteek eta nagusiek, berriz, gol zaparradak jaso zituzten; hain zuzen ere, kadeteek 0-4 galdu zuten Aitzgorriren aurka, eta nagusiek 1-6, Legazpi-ko Gaztetxearen aurka.

AIHERRA-ANTZUOLA

Lasterketaren aurkezpena, Koldo Mitxelengan

AINZANE IRIZAR

Datorren asteko egubakoitzean, hilak 15, Aiherra eta Antzuola artean egingo duten Lasterketa aurkeztuko dute Donostian, Koldo Mitxelena kulturgunean, herri bietako ordezkariak. Hilaren 18an, berriz, Baionan egingo dute ekitaldiaren aurkezpena.

AEK-k antolatzen duen Korrika izena ez erabiltzearen, Lasterketa izena jarri diote urriaren 29ko ekitaldiari. Urriaren 15ean aurkezpena egingo dute Koldo Mitxelengan, Donostian; hilaren 18an, berriz, Baionan.

Herri bietako batzordeek buru-belarri dihardute lanean, eta hainbat kontu zehaztu dituzte. Hasieran proposatutako ibil-

bidea aldatu egin dute; kostako ibilbidea egin beharrean, Donostialdea eta Goierri zeharkatuko dituzte, errepide zaharretik.

Bestalde, aipatzekoa da urriaren 29an, Lasterketa Aiherratik abiatu aurretik, hitzarmen instituzionala sinatuko dutela Antzuolako eta Aiherrako ordezkariak; izan ere, herri bien arteko anaitasunak 20 urte bete dituen

arren, orain arte, ez da horren gaineko akordio ofizialik egon.

URRI BUKAERAN ERAKUSKETA

Lasterketarekin lotuta, urriaren 23tik 30era argazki erakusketa antolatu nahi dute. 20 urte haue-tako argazkiak dituzten herritarrei argazkiok lagatzeko eskatu die Udalak; udaletxera eraman ditzakezue argazkiak.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urriak 9

16:30: Antzuola-Sto. Tomas (Gazteak)

PILOTA

Urriak 9 (Gipuzkoako Txapelketa)

17:30: Olalde-Hernani (Kadeteak)

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko urriaren 8a / 201. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Jabier Muguruzaren kontzertua izango da domekan Espaloian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jabier Muguruza kantautore irundarrak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 10ean, Espaloia kafe antzokian. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta bertan *Enegarren postala* diskoko abestiak kantatuko ditu akordeoia, baxua eta teklatura lagun dituela.

Urteetan bere akordeoiarekin kontzertuak eman ostean, hainbat proiektutan parte hartu eta gero bakarkako bideari ekin zion Jabier Muguruza kantautore irundarrak.

Joxe Ripiau taldeko kide izan zen sorreratik taldea desagertu arte, eta bertan ere akordeoia jotzen zuen.

Kantautore moduan Boza barruan, Kitarra bat nintzen, Aise, Fiordoan, Hain guapa zaudete eta Enegarren postala diskoak kaleratu ditu. Disko hauetan kantuek Muguruza beraren eta Iñaki Irazu, Bernardo Atxaga, Xabier Lete, Joseba Sarrionaindia edo Inazio Mujika bezalako idazleen hitzak dituzte.

Baina bakarka ez ezik hainbat proiektutan ere jardun du beste musikari batzuekin. Besteak beste Bernardo Atxagaren obran oinarritutako Nueva Etiopia disko-liburuan hartu zuen parte eta baita Jackson Browneri egindako Cantame mis canciones omenaldi diskoan ere.

Euskal Herrian bakarrik ez da jarduten Muguruza, eta besteak beste euskal kantagintzaren ordezkari izan da hainbat jaialditan. Musika kritiko eta adituek ere onenen artean kokatu dute kantari irundarra.

Idazle lanetan ere jarduten du eta haurrentzako liburuak eta narrazio liburuak kaleratuta ditu. Elgetako kontzertua

Jabier Muguruzak gaur egun musika eta literatura uztartuz dihardu lanean, beste hainbat proiektutan ere kolaboratuz. Enegarren postala kaleratu zuen iaz eta azken disko honetako abestiek osatuko dute Elgetako kontzertua. Jabier Muguruzak abestu eta akordeoia joko du eta Txema Garces baxuan eta Mikel Azpiroz teklaturan izango ditu lagun taula gainean.



Jabier Muguruzak akordeoia jo eta abestu egingo du Elgetako emanaldian.

ARTXIBOA

ELKARTEAK

Jabier Arantzeta presidente izendatu dute Ozkarbi elkartekeko urteko batzarrean

I.A.

Ozkarbi elkartekeko urteko batzarra egin zuen joan zen astean eta kontuen balantzean egin ondoren, zuzendaritzako kide berriak izendatu zituzten, baita presidentea aukeratu ere. Jabier Arantzeta hartuko du kargua aurki.

Urteko diru kontuen balantzea egin ostean, zuzendaritza taldeko kide berriak zein izango diren jakinarazi zuten Ozkarbi elkar-tearen urteko batzarrean, baita presidente berria aukeratu ere.

Guztira 12 lagunek osatzen dute zuzendaritza taldea. Iazko taldetik aurrean jarraituko dutenak Garikoitz Arrazola, Teresa Elortza, Jabier Arantzeta, Joseba Muxika, Iban Retolaza eta Iñaki Egizabal dira. Zuzendaritzan lekua orain hartuko dutenak, berriz, Jon Agirreazaldegia, Sebastian Arantzabal, Jose Luis Arantzabal, Celia Egizabal, Aintzane Sarasua eta Gaizka Bolinaga.


Jabier Arantzeta izango da urtebetez Ozkarbiko presidentea 24 boto jaso baitzituen eta Celia Egizabal, aldiz, presidente orde, 15 boto jasota.

ASMOAK

Jabier Arantzeta iaz presidente orde izan zenez, badaki zuzendaritzako nondik norako berri.

Berak esan digunez, "ordena gailu bidez kontuak egitearena martxa onean doa, eta jendea gustura dagoenez, bide horretatik jarraituko dugu".

Hala ere, badituzte beste hainbat asmo. "Teilatua konponduko dugu, ahal dela Gabon aurretik. Bestalde, iaz estatutuak euskaratu eta hainbat aldaketa egin ostean, aurrean barne araudia berritzea da gure nahia", esan digu Arantzetak.



Jabier Arantzeta.

ARTXIBOA

LABUR

Baserrietarako bideak garbitu egingo dituzte

Datorren astean hasiko da Udalararen aginduz kanpoko enpresa bat herriko baserrietara doazen bideak garbitzen. Baserri auzo guztietara joango dira langileak eta batik batik bide bazterretan pilatutako sasiak, belarrak eta gainontzeko zikinak kentzea izango da euren eginbeharra. Bide batzuek, ordea, ez dituzte garbituko Foru Aldundiaren ardurapean baitaude. Elgetan 60 baserritik gora daude eta hamar egun inguru beharko dituzte lanak amaitzeko.

Gripearen aurkako txertoa hartu daiteke oraindik

Irailaren 20an hasi zen gripearen aurkako txertaketa kanpaina eta urriaren 29an amaituko da. Elgetako osasun zentroan esan digutenez, txertoa hartzeko aurrez txanda eskatzea komeni da Bergarako osasun zentroko telefonora deituta (943 03 54 00). Baina txertoa Elgetan bertan emango diete nahi dutenei. Kanpaina herritar guztiei dago zuzenduta, baina bereziki 65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoak dituztenek hartu behar dute txertoa.

Aixolarako bidean informazio panelak ipiniko dituzte

Foru Aldundiaren diru laguntzen bidez, herriko hainbat bide seinaleztatzeko aukera izango da aurki. Elgetan, Aixolarako bidean informazio panelak ipintzea erabaki dute. Guztira, hiru panel ipiniko dituzte, bat bidearen hasieran, betea Aixolan bertan eta hirugarrena Ermutik datozenek ikus dezaten, hango partean. Paneletan ibilbidearen krokisa, desnibela eta distantzia azalduko dira besteak beste. Zehazteke dago noiz ipiniko dituzten panelok.

ELKARRIZKETA

MIREN ARGI ZEZIAGA/MAALA GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA

Aurtengo erronka Eskola Txikien Jaia antolatzea da

Irailean egin zuten bilera Maala guraso elkarte kideek, eta bertan, besteak beste, presidente berria aukeratu zuten. Uri Gallegoren lekua Miren Argi Zeziagak hartu du eta elkarteko presidente izango da datozen bi ikasturteetan.

Zu izendatu zaituzte guraso elkarteko presidente. Zein da elkartearen eginbeharra?

Guraso elkartearen funtzioa eskolaren eta gurasoen arteko harremana koordinatzea da. Elgetan 2 urtetik 12 urtera arteko ikasleak daude eta gela bakoitzeko guraso ordezkari bat dago. Arazoren bat izanez gero ordezkari honengana joko lukete gurasoek. Bestalde, herrian egiten diren ekintza batzuetan hartzen dugu parte, bai antolatzaile modura, baita laguntzaile bezala ere. Zein ekintza antolatzen ditu elkarteak?

Guraso elkarteak zuzenean antolatzen dituen ekintzak Gabonetako eta Inauterietako merienda dira. Honetaz gain, eskolak

antolatutako beste hainbat ekintzatan parte hartzen du laguntzaile modura eta dirua emanaz. Esaterako, gaztaina erre eta Santo Tomas egunetan edo ikasturte amaierako bazkarian. Gabonetan saskia zozketatzen dugu eta kantuan ere irteten dira umeak, baita Santa Ageda bezperan ere. Horrekin jasotako dirua eskolarendako izaten da. Gasturik handiena irteerarako antolatzen diren autobusetan egiten dugu. **Zein dira azken urteotan egin diren lorpenik handienak?**

Guraso batzuek bultzatuta eskolan jantokia jartzea, baita bi urtetik aurrerakoendako gela ipintzea ere. Jantokian gaur egun ume asko geratzen da bazkaltzen. Bestalde, gure lorpena ez bada ere,

“Eskola gero eta dinamikoagoa da eta gurasoek begi onez ikusten ditugu berrikuntzak”

aurten harreskola jarri da abian, eta hori gurasoendako oso positiboa da.

Aurrerantzean zein asmo ditu guraso elkarteak?

Erronkarik handiena Eskola Txikien jaia da. Horretarako guraso elkartetik aparte beste batzorde bat sortu dugu. Lanean hasi gara, baina herritar guztien laguntza beharko dugu.

Eskolan egindako berrikuntzak nola ikusten dituzue?

Psikomotrizitate gela da berrikuntza nabarmenena. Gimnasia gela txiki batean egitetik gela handi batera pasa dira eta psikomotrizitatean aditua den irakasle batekin gainera. Logopeda bat eta hezkuntza bereziko irakasle bat ere badaude. Ortua lantzerak ere joaten dira umeak... Eskola gero eta dinamikoagoa da urtetan aurrera joan ahala. Eskolaren lorpenak badira ere gurasoek begi onez ikusten dituzue.

Zein behar sumatzen dituzue?

Erakundeetako diru laguntzen beharra ekintzak eta irteerak egiteko. Bestalde, eskola ingurua txukuntzea, bankuak eta zakar ontziak ipiniz, esaterako.



GARRAIO PUBLIKOA

Autobus zerbitzua sarri erabiltzeko dei egin du Udalak

Gestio askoren ostean, Elgeta eta Bergara arteko autobus zerbitzu berria abian ipini zuten irailean, eta jadanik autobusen ordutegia ere zehaztu dute. Horretarako, herritarren beharrak hartu dituzte kontuan, bereziki, ikastera eta errehabilitaziora zein ospitalera joaten diren elgetarrenak.

ZERBITZU BEREZIA

Ikasleen beharrak kontuan hartuta antolatu da zerbitzu berria: goizean 07:40an Bergarara joateko eta eguerdian 14:40an Elgeta-

ra bueltatzeko. Ibilbidean aukera dago autobusak Uberan eta San Juanen gelditzeko.


Ikasleek gain, gura duten guztiek erabil dezakete autobusa. Horretarako interesatuek udaltxerara deitu behar dute.

Bidaia baterako txartelak euro bateko kostua izango du, baina bonoa eginez gero, 0,90 euro ordaindu beharko dira. Bonoak bi motatakoak daude: hamar bidaiakoak, bederatzikoak, bederatziko truke eta 30 bidaiakoak 27 eurokoak. Bonoen gaineko informazio gehiago udaltxean bertan emango diete interesatuei.

UDALAREN ESKAERA

Zerbitzua abian jartzeak ahalegin handia eskatu duenez, Udaletik zerbitzu hauek erabiltzera animatu nahi dituzte herritarrak. Izan ere, dauden autobusak erabiltzeak bakarrik ahalbidetuko du zerbitzua luzaroan edukitzea eta zerbitzu berriak antolatzea.

Udalarendako, ahalegin ekonomikoaz gain, apustua ere bada zerbitzuok martxan jartzea, eta herritarrek eurekin bat egitea nahi luke Udalak; horregatik elgetarrei dei egin diete Udaleko ordezkariak autobusa ahalik eta maiz erabil dezaten.



Elgetatik Bergarara joan eta bertan egiten dira gainontzeko herritarako loturak.

DANBAKA

DEBAGOIENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Parte har ezazu Goienak eta Espaloia Kafe Antzokiak antolatzen duten musika lehiaketan

Estilo guztiak ditugu gustuko, zuena ere bai!



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela arę hobeagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 